

## **GIZATASUNERAKO PASAPORTEA**

### **ZER DA?**

Dokumentu ofiziala, legala, unibertsala, bakarra eta alda ezina

GIZATASUNERAKO atea da, justuago eta elkartasunezkoagoa den mundu baterako sarbidea; non pertsona orok badaukan bere tokia, eskubide , betebeharrak eta baldintza berdinetan.

Mundu hobetoagoa baterako sarbidea, nun pertsona oro libreki mugitu daitekeen hara eta honera.

Bertako pertsonen bidez, mundu honek eskaintzen dizkigun EDERTASUN ANITZAK ezagutzeko, ikusteko, entzuteko, sentitzeko, eta gozatzeko aukera emango dizu pasaporte honek.

Bere bitartez, munduan barrena libreki bidaitzeko aukera izango duzu. Baita etxetik ia mugitzeko lanik gabe ere. Nola? Ba zure auzoan, ondoan, bizi eta inguratzen zaituzten pertsonen ezagutzari esker.

### **ONGI ETORRI GIZATASUNERA**

Goza dezazula GIZATASUNERAKo bidai hontaz.

“Zapiak ez dezala zure izatea oztopatu”

### **NOLAKOA DA GIZATASUNA IZENEKO LURRALDEA? NUN DAGO?**

GIZATASUNA hau da: pertsona guztia berdintasunez tratatua den lurralde bat da. Bere jatorri, sinismen, arraza, erlijio, sexu, orientabide sexual, ohitura, hizkuntza.....edozein delarik ere.

Lurralde bat nun ezberdintasunak, ikasteko aukera diren; elkar aberastekoa.

Nun elkartasuna benetazkoa den, justizia sozialean oinarrituriko elkartasuna, karitate zein paternalismotik urrun.

Nun elkartasun hori berdintasunean ematen den, maila berean,gizakia pertsona bezala tratatuz, bere osotasunean.

Nun elkartasun horrek indartu egiten gaituen, une gogorrean aurre egiteko garaian, egun bizi dugun krisia , adibidez.

Oso erraza da GIZATASUNAREN lurraldea kokatzea. Arreta pixka bat jarritz, bihotzeko begiak irekiz, modu, bide, era.....ezberdinak ikus ditzakezu bertara iristeko , zure egunerokoan baitago gizatasuna: zure auzoan, herriko plazan, etxe ondoan, eskolan, dendan.....mugitzen zareneko edozein txoko zein bazterretan, azken finean.

Hausnarketa aktibatzen baduzu, entzuten dituzun hainbeste zurrumurruek aurrean kritika pizten baduzu, jatorri anitzeko pertsonekin harremanetan jartzen bazara, beraiena denarekiko jakinmin benetazkoa adierazten baduzu.....segituan ohartuko zara GIZATASUNERAKO bidaia, ikaragarri merkea izateaz gain, oso interesgarria, dibertigarria eta aberasgarria izan daitekeela.

Zuk erabili nahi duzun denbora soilik eramango dizu bidai berezi honek.

### **BIDAI ONA IZAN!!!!!!!!!!!!!!!**

“Ireki barruko begiak, itzuli azkenik zure jatorriaren jatorrira”

## **NORK ESKURA DEZAKE GIZATASUNERAKO PASAPORTEA?**

Mundua izena duen planeta honetan bizi garen pertsona bakoitzak

## **ZENBAT BALIO DU?**

Pasaporte eskuratzeko erabili nahi duzun maitasuna eta errespetua.

Horretarako erabili nahi duzun denbora, xamurtasuna, maitasuna, pentsamendu eta bihotzaren irekiera.

## **ZENBAT DENBORA BEHAR DUT PASAPORTEA JASOTZEKO?**

Zuk hala nahi baduzu, bizi guztia erabil dezakezu pasaporte hau lortzeko

Oroitu pasaporte hau bakarria dela, hortaz, bera jasotzeko behar duzun denbora zure esku bakarrean dago.

## **ARGAZKIRIK BEHAR AL DUT?**

Jatorri anitz eta ezberdineko pertsonen arteko harreman baikorra adierazten duen edozein argazki, irudi, ideia.....jar dezakezu.

Askea zara zurea izango de pasaporte hau nahi dituzun irudiekin laguntzeko, betetzeko, edota apaintzeko.

Zure desirak, nahiak, asmoak, ilusioak, ideiak.....berdintasuna, errespetu, elkar ulertze, bizitza baikor, aniztasuna.....rako dituzun gogoak proiektatzeko gune aparta izan daiteke.

## **NOLA LOR DEZAKET PASAPORTEA?**

Oso erraza da.

Giza Eskubideen Nazioarteko Eskutitzak dioena gogoratzetik has zaitezke.

Egitazko informazioa bilatzen jarrai dezakezu, zeren inguruan? Ba migrazioek, aniztasunak, jatorri ezberdineko pertsonen ingurukoak.....etorkinek eraman EZ gaituzten krisi egoera honen inguruan.....

Web orrialde hauek bisitatu: [www.aulaintercultural.org](http://www.aulaintercultural.org), [www.alternativas.org](http://www.alternativas.org), [www.culturadepaz.info](http://www.culturadepaz.info), [www.sosracismo.org](http://www.sosracismo.org), [sakana-mank.com](http://sakana-mank.com).....

Historiari atzera begirada bat bota dezakezu: gure aintzinakoek bizitu zituzten migrazioak oroitu.....

648 07 70 10 tfnora deitu.....

## **NON AURKEZ DEZAKET PASAPORTEA?**

MUNDUKO TXOKO ZEIN BAZTER guztietarako balioko dizun pasaporte da.

Edonon aurkez dezakezu. Eta nork daki, again bizi ditugun garai hauetan, migratzea etor dakigunez, oso erabilgarria suerta dakiguke.

Beraz, zorterik hoberena biziaren bidai honetarako, eta gozatu Aniztasuna.

## **ZERGATIK?**

“Maletak hango bizitza lepo, inork ez gaitu itxoiten, ezta ongietorria ematen honera iristen garenean.” Nancy Juape. Peru.